ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 25a, asteazkena • 136 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zuiako udalerrian Egonaldi Turistikoen gaineko Zerga arautzen duen zerga-ordenantza eta ezarpen-akordioa behin betiko onartzea

2026ko irailaren 23ko osoko bilkuran hartu eta 2026ko urriaren 2ko ALHAOn 113. zk. argitaratu zen hasierako onespenaren erabakia jendaurrean jartzeko epearen barruan ez denez erreklamaziorik, iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu, erabaki hori behin betikoa izango da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.c) artikuluan xedatutakoaren arabera. Testu osoa argitaratu egingo da, eta aipatutako legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epea igaro ondoren jarriko da indarrean, 70.2 artikuluarekin bat etorriz.

Erabaki eta ordenantza honen behin betiko onarpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik harako bi hilabeteko epearen barruan.

Murgian, 2026ko azaroaren 17an

Alkate-lehendakaria
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

EGONALDI TURISTIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA ZUIAKO UDALERRIAN

Arabako Batzar Nagusiek Egonaldi Turistikoen gaineko Zergari buruzko ekainaren 10eko 13/2026 Foru Araua onartu dute.

EUDELen Batzorde Betearazleak, udalek arlo horretan erabakiak errazago har ditzaten, erabaki du, 2026ko ekainaren 11n egindako bileran, zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren eredua onartzea eta udalei bidaltzea. EUDELeko zerbitzu teknikoek egindako ordenantza-eredua, hainbat udalekin batera egindako lanaren emaitza dena.

Era berean, Batzorde Betearazleak egokitzat jo du udalei honako gogoeta hauek helaraztea ordenantza fiskalaren onarpenari dagokionez:

1) Egonaldi turistikoen gaineko zerga nahitaezko zerga da; beraz, udal guztietan aplikatuko da, 2027ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, dagokion ordenantza fiskala onartzen den ala ez kontuan hartu gabe.

2) Ordenantza fiskala 2027ko urtarrilaren 1a baino lehen behin betiko onartu eta ALHAOn argitaratu ez bada, foru-arauak aurreikusten dituen gehieneko karga tasak aplikatuko dira data horretatik aurrera. Horregatik, komenigarria da ordenantza fiskala onartzeko prozeduratik eratorritako epeak planifikatzea eta kontuan hartzea: behin-behineko erabakia, gutxienez 30 egun baliodunetan jendaurrean jartzea, behin betiko erabakia, erreklamazioak aurkeztuko direla aurreikusita, eta ALHAOn osorik argitaratzea.

3) Ordenantzak turismo-ostatuko establezimendu bakoitzari aplikatu beharreko karga-tasa finkatu beharko du, Foru Arauaren 9. artikuluan horretarako ezarritako gutxieneko eta gehieneko tasen tartearen barruan.

4) Foru Arauaren 11.1 artikuluko baldintzak betetzen dituzten eta zerga kuotaren % 100eko hobaria ezartzen duten udalek dagokion zerga ordenantza onartu eta argitaratu beharko dute. Bestela, Foru Arauaren 9. artikuluan aurreikusitako gehieneko tasak aplikatuko dira. Kuotaren % 100eko hobaria onartzeak esan nahi du establezimendua ez dagoela behartuta zergaren autolikidazioa aurkeztera; betebehar hori, ordea, egongo da hobari txikiagoa ezartzen bada.

5) Foru Arauaren 11. 2. artikuluko baldintzak betetzen dituzten udalek zerga-kuotaren % 50erainoko errekargua ezarri ahal izango dute; errekargu hori turismo-ostatuko establezimendu mota guztiei aplika dakiekeen errekargu bakar gisa interpretatu behar da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ZUIAKO EGONALDI TURISTIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Arautegi aplikagarria

Udal honek, Arabako Toki Ogasunei buruzko Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 22.1.d) artikuluan eta Egonaldi Turistikoen gaineko Zerga sortu eta arautzen duen ekainaren 10eko 13/2026 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, zerga hori ordenantza honen bidez galdatzen du.

2. artikulua. Lurralde eremua

Honako ordenantza hau Zuiako udalerri osoan ezarri da.

II. TITULUA: ZERGA EGITATEA ETA SALBUESPENAK

3. artikulua. Zerga egitatea

1. Udalerri honetan kokatuta dauden hurrengo establezimendu turistikoetan zergadunek, eguneko edo zatikiko, egiten dituzten egonaldiek eratzen dute zergaren zerga egitatea, gaua bertan emanda zein eman gabe:

a) Turismo-establezimenduak, ondorengo kategorien arabera:

   1) Hotelak.

   2) Pentsioak.

   3) Apartamentu turistikoak.

   4) Kanpinak eta kanpatzeko beste modalitate batzuk.

   5) Nekazaritza-turismoko establezimenduak.

   6) Landetxeak.

   7) Aterpetxeak

   8) Turismoko beste ostatu establezimendu batzuk.

b) Erabilera turistikoko etxebizitzak, ondorengo modalitateen arabera

   1) Osorik alokatuak.

   2) Logelaka alokatuak.

4. artikulua. Salbuespenak

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Zergaren aplikaziotik salbuetsita daude honako hauek:

a) Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioko kide diren estatuetako Administrazio publikoek helburu turistikoekin antolatutako gizarte programek diruz lagundutako egonaldiak.

Salbuespen kasu hau aplikatu ahal izateko, bi agiri hauetako bat aurkeztu beharko da: egindako erreserbaren frogagiria edo programa soziala sustatzen duen entitateak luzatutako faktura, non identifikatu behar baita zein programa den, zer administrazio publikok finantzatzen duen eta zein pertsona diren haren onuradunak

b) Hemezortzi urtetik beherako pertsonek egindako egonaldiak.

Salbuespen hau aplikatzeko, adingabearen nortasuna eta adina frogatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira (nortasun agiria, pasaportea, familia liburua edo antzeko beste dokumentu batzuk), eta halako dokumentaziorik eduki ezean, gurasoaren, tutorearen edo adin nagusiko laguntzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

c) Ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa edo II. edo III. graduko mendekotasuna dutela egiaztatzen duten pertsonen egonaldiak, bai eta haiekin batera doazen pertsonenak ere. Gehienez ere laguntzaile bat egongo da desgaitasuna edo mendekotasuna duen pertsona bakoitzeko

Salbuespen hori aplikatzeko, salbuespenaren egitatezko kasua gertatzen dela egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira, eta zergadunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, dela desgaitu gisa, dela mendeko pertsona gisa, dela laguntzaile gisa.

Erantzukizunpeko adierazpenean, desgaitasuna edo mendekotasuna duen pertsonaren identifikazio-datuak jaso behar dira, bai eta, hala badagokio, harekin doan pertsonarenak ere. Eragindako pertsonak bat baino gehiago badira, erantzukizunpeko adierazpena batera aurkez daiteke, eta zergadun guztien datuak jaso beharko dira. Kasu horretan, nahikoa izango da haietako baten haietako batek bakarrik sinatzea, adinez nagusia bada.

d) Turismoko ostatu establezimenduetan ematen diren egonaldiak, haien arrazoia hezkuntza sistemako maila eta gradu guztietako ikasketak egitea (unibertsitateko hirugarren ziklora arte) edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoek antolatutako ikerketa akademikoko planetan edo talentu programetan parte hartzea denean.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, agiri bidez frogatu beharko da salbuespenaren egitatezko baldintzak bete egiten direla.

e) Edozein pertsonak osasun arrazoiengatik egiten dituen egonaldiak, bai eta harekin doazen pertsonenak ere. Tratamendua behar duen pertsona bakoitzeko, laguntzaile bat onartuko da gehienez.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, zergadunak osasun zentroaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, titulartasun publikokoa edo pribatukoa, edo txosten mediko bat bertan adierazita jasotako osasun laguntza Euskal Osasun Zerbitzuaren zerbitzu zorroaren parte dela. Horri erantzukizunpeko adierazpen bat erantsi beharko zaio, dela pazientearena, dela laguntzailearena.

Erantzukizunpeko adierazpenak pazientearen identifikazio datuak jaso behar ditu, bai eta harekin doan pertsonena ere, halakorik badago. Ukitutako pertsonak bat baino gehiago badira, erantzukizunpeko adierazpena batera aurkez daiteke, zergadun guztien datuak barruan sartuta, eta ukitutako zergadunetako batek bakarrik sinatu ahal izango du, baldin eta adinez nagusia bada.

f) Ezinbesteko kausengatik egiten diren egonaldiak.

Salbuespen honen ondorioetarako ezinbesteko kausatzat hartuko dira honako hauek: hondamendi naturalengatik, larrialdi egoerengatik edo pertsonentzat aparteko arriskua dakarten indarkeriazko ekintzengatik aurreikusi ezin daitezkeen gertakariak edo, aurreikusgarriak izanik ere, saihestezin gertatzen direnak, establezimendu turistikoa urgentziaz eta behin-behinean okupatu beharra dakartenean edo larrialdi edo segurtasun publikoaren alorreko neurri publikoren bat aktibatzea eragiten dutenean.

Era berean, eta salbuespen honen ondorioetarako soil-soilik, ezinbesteko kausek eragindakoekin parekatzen dira zergadunak, etxebizitza fisikoki ezin erabiltzea dakarten ezohiko zirkunstantzia objektiboengatik, bere egoitzako udalerrian egiten dituen egonaldiak. Horrelakoak gertatuko dira, esate baterako, etxebizitzan ezin denean bizi bertan obrak egin behar izateagatik edo bertan ezbeharren bat gertatzeagatik.

Salbuespen hau aplikatzeko, zergadunek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute (ukitutako zergadunak bat baino gehiago izanez gero batera aurkeztu daitekeena), eta, bertan gertakaria zein izan den utzi beharko da jasota; harekin lotuta neurri publikoren bat aktibatu bada, hura frogatu beharko da segurtasun publikoaren edo larrialdien arloan eskumena duen administrazio publikoak emandako dokumentua erantsita, salbu eta ezinbestekotasuna ekarri duten zirkunstantziak legezko deklarazio baten edo udal administrazioak ezagutzen duen ageriko egoera baten ondorio badira.

Erantzukizunpeko adierazpenean zergadunen identifikazio datuak jaso beharko dira, eta haietako edozeinek sinatu ahal izango du, adinez nagusia bada.

III. TITULUA: EREMU SUBJEKTIBOA

5. artikulua. Subjektu pasiboak

1. Hirugarren artikuluan aipatutako turismoko edozein ostatu establezimenduetan egonaldi bat egiten duten pertsona fisikoak. Izango dira zergaren subjektu pasiboak.

2. Zergadunaren ordezko izango dira.

Edozein pertsona fisiko edo juridiko, bai eta Arabako Lurralde Historikoko Zergen buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Araua Orokorraren 35. Artikuluan aipatzen diren entitateak ere, ordenantza honen aurreko 3. artikuluan jasotako establezimendu turistikoetako edozeinen ustiapenaren titular badira.

3. Zergadunaren ordezko gisa, honako hauek egongo dira behartuta ordenantza honetan betebehar material eta formalak betetzera, bai eta hura garatzeko ematen diren erabakiak eta xedapenak ere:

4. Kontrako frogarik ezean, ulertuko da Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan turismoko ostatu establezimenduaren jardueraren titular gisa izena emanda ageri den pertsona dela haren ustiapenaren titularra. Pertsona hori fisikoa edo juridikoa izan daiteke, baina baita Arabako Zergen buruzko otsailaren 28ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. apartatuan aipatutako entitate bat ere.

6. artikulua. Erantzule solidarioak

Erantzule solidarioak izango dira egonaldi horiek zuzenean kontratatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, edo haien kontratazioan bitartekari gisa dihardutenak, erreserbaren formalizazioan edo egonaldiaren prezioaren kobrantzan esku hartzen dutenean.

IV. TITULUA: ZERGA OINARRIA, KUOTA ETA SORTZAPENA

7. artikulua. Zerga oinarria

1. Zergaren zerga oinarria kalkulatzeko, aintzat hartuko da zenbat egonaldi unitate egiten dituen zergadunak egonaldi jarraitu batean turismoko ostatu establezimendu berean, gaua bertan emanda zein eman gabe.

Ondorio horietarako, egonaldi jarraitu horrek dakarren egun bakoitza edo egun-zati bakoitza hartuko da egonaldi-unitatetzat.

Era berean, egonaldi jarraitutzat hartuko da pertsona bat turismoko ostatu establezimendu berean egotea, etenik gabe, erreserba, kontratu edo onarpen dokumentu bat edo gehiago egon ala ez.

Egonaldiak egiten badira maiz errepikatzen diren lan arrazoiengatik, lanik egiten ez den egunetako aldi baterako absentziek ez dute egonaldi jarraitua etenaraziko, betiere zergadunak establezimendu berean ostatu hartuta jarraitzen badu.

2. Egonaldiaren egun edo zatiki kopurua: establezimendu turistikoak sartu eta irteteko ordutegiei buruz ezarritako arauak edo erabilerak aplikatzearen ondoriozkoa izango da.

3. 24 ordutik beherako egonaldiak egonaldi unitate bat direla joko da.

4. Zerga oinarria zuzeneko zenbatespenaren metodoaren bidez zehaztuko da, eta, horretarako, aintzat hartuko dira aurkeztutako aitorpenak edo dokumentuak, Administrazioak egiaztatutako liburu eta erregistroetan jasotako datuak, eta zerga betebeharraren elementuekin zer ikusia duten gainerako dokumentu, frogagiri eta datuak.

8. artikulua. Karga tasak

1. Aurreko artikuluaren arabera zehaztutako zerga oinarriari karga-tasa hauek[1] aplikatuko zaizkio, eurotan adierazita egonaldi-unitate bakoitzeko, turismo-ostatuko establezimendu motaren arabera:

Establezimendu mota:

a) **Establezimendu turistikoak**

- Hotelak 5 izarrekoak edo kategoria baliokideak ..... 4,50.
- Hotelak 4 izarrekoak edo kategoria baliokideak ..... 3,50.
- Hotelak 3 izarrekoak edo kategoria baliokideak ..... 1,50.
- Hotelak 2 izarrekoak edo kategoria baliokideak ..... 1,00.
- Hotelak 1 izarrekoak edo kategoria baliokideak ..... 0,75.
- Pentsioak ..... 0,75.
- Apartamentu turistikoak ..... 1,50.

- Kanpinak eta kanpatzeko beste modalitate batzuk.....0,75.
- Nekazaritza-turismoak .....0,50.
- Landetxeak.....0,75.
- Aterpetxeak .....0,75.
- Turismoko beste ostatu establezimendu batzuk .....1,50.

b) **Erabilera turistikoko etxebizitzak:**

- Osorik alokatuak .....6,50.
- Logelaka alokatuak .....6,50.

2. Nolanahi ere, zergadun bakoitzeko eta ostatu establezimendu berean egindako egonaldi jarraitu bakoitzeko, 6 egonaldi unitate konputatuko dira gehienez.

9. artikulua. Kuota, hobariak eta errekarguak

Zerga kuota honela kalkulatuko da: egonaldi jarraitu bakoitzean egindako egonaldi unitate kopurua bider turismo establezimendu motaren arabera aplikatu beharreko karga tasa, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera.

10. artikulua. Sortzapena eta galdagarritasuna

1. Turismoko ostatu establezimendu berean modu jarraituan egiten den egonaldia, egonaldi unitate bakoitzeko konputatua, hasten den unean sortuko da zerga.

2. Ulertuko da egonaldi turistikoa hasten dela turismoko ostatu establezimenduaren titularrak turismoko ostatu plaza zergadunaren eskura jartzen duen une.

3. Zergadunaren ordezkoak egonaldia amaitu aurreko edozein unetan exijitu ahal izango dio zergadunari zergaren ordainketa.

Ondorio horietarako, zergadunak behar den informazioa emango dio ordezkoari, exijitu beharreko zerga kuota zehaztu dezan, eta, hala badagokio, beharrezko dokumentuak ere jarriko ditu haren esku, aplikatu beharreko salbuespenetarako eskubidea ematen duten inguruabarrak betetzen direla frogatzeko.

Nolanahi ere, zergaduna behartuta egongo da dagokion zenbatekoa ordezkoari ordaintzera, eta ezin izango dio beste pertsona edo entitate bati jasanarazi.

V. TITULUA: ZERGAREN KUDEAKETA

11. artikulua. Zerga autolikidatzea eta zerga zorra ordaintzea

1. Zergadunaren ordezkoa behartuta dago zergaren autolikidazioa modu telematikoan aurkeztu eta sinatzera eta dagokion zerga zorra ordaintzera ,emango zaion eredu ofizialaren arabera. Eredu horretan, zerga-harremanaren elementuak eta udal-administrazioak dagokion likidazioa egiteko beharrezkoak eta ezinbestekoak diren gainerako datuak jasoko dira.

2. Establezimendu turistiko bat baino gehiago ustiatzen dituen zergadunaren ordezkoak modu

agregatuan eta autolikidazio bakarrean ordaindu ditzake ustiatutako ostatu establezimendu turistiko bakoitzagatik zergan sortutako kuotak.

3. Likidazio aldia hiru hilean behingoa izango da, urte naturala banatzen den hiruhileko bakoitzaren arabera, eta zergadunaren ordezkoak dagozkion hiruhileko autolikidazioak aurkeztu beharko ditu, hiruhileko likidazio-aldia amaitu eta hurrengo hilabeteko 25 egun naturaletan, ematen den eredu ofizialaren arabera.

12. artikulua. Ostatu establezimenduen identifikazioa

Zerga honi dagozkion jarduketetan, establezimendu turistikoek ematen zaien identifikazio kodearen bitartez egon behar dute identifikatuta, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan (ETEE) duten identifikaziotik abiatuta.

13. artikulua. Informatzeko betebeharrak

Zergadunaren ordezkoak udal honen eskura jarri beharko du, hark hala eskatuz gero, zerga kudeatu, likidatu, bildu eta ikuskatzeko ondorioetarako soilik, udalerri honetako turismo-establezimenduetan tributu- ahalen epeetan izandako egonaldiei buruzko informazioa.

Informazio horretan, honako hauek jasoko dira: ostatu hartutako pertsona kopurua, sarrera eta irteera datak, zenbat orduz izan diren itsasontziak ainguratuta edo amarratuta, eta, hala badagokio, zer beste zirkunstantziek justifikatzen duten salbuespenak aplikatzea, betiere turismo eta segurtasun arloko araudi aplikagarrian aurreikusitako identifikazio betebeharrak eragotzi gabe.

Udalak ordenantza honen 12. artikuluan adierazitako epeen barruan aitortu ez diren zergapeko egitateak egin direla jakiten duenean, zergadunaren ordezkoari dagokion autolikidazioa aurkezteko eskatu ahal izango dio, egindako zerga-arloko arau-hausteak eta, hala badagokio, bidezkoak diren zehapenak alde batera utzi gabe.

Nolanahi ere, udalak ofizioz instruitu ahal izango du espedientea, bere esku dauden datuekin, eta dagokion behin-behineko likidazioa, likidazio osagarria edo behin betikoa egingo du, ordaintzeko epeak eta dagozkion errekurtsoak adierazita, hargatik eragotzi gabe tributuen arloan egindako arau-hausteak eta aplikatu beharreko zehapenak.

Datu pertsonalen tratamendua datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera egingo da.

14. artikulua. Eskumenak

1. Zerga kudeatu, ikuskatu eta borondatezko epean zein epe exekutiboan biltzea, zerga zehapenak ezartzea, eta tributua aplikatzean eta zerga zehapenak ezartzean emandako egintzak berrikustea udal honi dagozkio turismo-ostatuko establezimenduak udalerrian daudenean.

2. Zehazki, udalei dagokie hobariak eta errekarguak ezartzea, zerga zorrak zehazteko likidazioak egitea, kobrantzako dokumentuak jaulkitzea, bidegabeko diru-sarreren itzulketari buruzko espedienteak ebaztea, egintza horien aurka aurkezten diren errekurtsoak ebaztea, eta, azkenik, zergadunari apartatu honetan aipatutako gaien inguruko laguntza eta informazioa ematea.

Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean araututako zerga-arloko arau-hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Zerga hau aplikatzeko egintzak eta jarduketak eta zerga zehapenak ezartzeko burutzen direnak beti berrikusi ahal izango dira Arabako Toki Ogasunei buruzko Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 14.. artikuluaren eta Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrean (otsailaren 28ko 6/2005 Foru Araua) jasotzen diren xedapenen arabera bat.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea eta ondorioak

1. Ordenantza hau, 2026ko irailaren 23an behin betiko onartua, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2027ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa gorabehera, zergadunek aipatutako ostatu establezimenduetan egiten dituzten egonaldiengatik ez da zergarik exijituko, baldin eta haien erreserba 2026ko otsailaren 5a baino lehen egin bada.

Bigarrena. Gaitzea.

Alkatetzari ahalmena ematen zaio ordenantza hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren ebazpenak emateko, eta, bereziki, autolikidazio-ereduak eta salbuespenak justifikatzeko erantzukizunpeko adierazpenak onartzeko.

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.25 06:56:01 Z